

Zumaiako herri aldizkaria

1998ko apirila

BALEIKE

100 pta.

45. zenb.



● Itzurungo
uhinak San
Telmo aldean

● Fidantza bat
eskatu zaie
txosnei

● Hotela eta
talasoterapia
Zelaian

● **San Telmotako prest !!**

ERROTA



OPIL OKINDEGIAT

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa Tel. 860000

Erribera, 2 143001

Juan Belmonte, 5 860300

Basadi, 4 143221


P. Etxezarreta, 42 862528



Zumaiaako Udalak

SAN TELMO jai zoriontsuak opa dizkizue zumaiaar guztiei

*jaiak denonak izanda,
denok festara !*



Foronda kultur etxea

tel.: 943 86 10 56

faxa: 943 86 17 42

e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE

BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue

Amaia Benito

Eneko Dorronsoro

Josu Waliño

Iñaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre

Esther Aizpurua

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Joseba Ossa

Juan Luis Romatet

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre

Igor Uranga

Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub

taldea, Ingurugiro tailer

eskola, Miriam Romatet,

Jon Manzisidor, Josu

eta Arantxa, Igone eta

Nerea, Rikardo

Zengotita, Fototeka,

Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Jon Manzisidor

Argazkiak

Jonathan Bernal

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga, Xabier

Azkue

Banaketa

Eneko Dorronsoro

Ainara eta konpainia

Publizitatea

Iñaki Zubimendi 143226

Inprimategia

Gertu Inprimategia

(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Udaberria eta Eusko Trenbideak

Azken denboraldi honetan aldaketak ikusi ditugu; nabarmenena seguraski udaberrian sartzea izan da: loreak ateratzen dira, umorea aldatu.

Honekin batera ordu aldaketa jasan dugu, eguna luzatzen doa eta hau zertxobait gehiago gozatzeko aukera daukagu.

Honetaz konturatzeko goizean jaiki eta autobusean Donostiarako bidean eguna noiz argitzen duen ikustea da onena. Bidea zoragarria da; kostatik bide erdia. Esnatzeko egoera ezin hobea da: autobusean saltatu, alde batera eta bestera mugitu, aurreraka-atzeraka joan... ia-ia kaferik ere ez dut behar izaten iristen naizenean.

Beno, guzti hau eserita bazoaz. Zutik joaten bazara kontua bestelakoa da: mugimendu handiegia izan daiteke goizerako... eguerdirako eta baita gauerako ere.

Orain gainera 25 urtetik beherakoentzat bonoa jarri dute (suposatzen da besteei ez zaiela ondo etorriko bonoa, ezta?). Nire buruari galdetzen diot zertan ibili diren orain arte eta erantzun bakarra etortzen zait burura: aberasten. Hala ere, Zumaia-Donostia bidearen monopolioa eduki arren, Jaurilaritzaren laguntza behar izan dute bono zoragarri hori ezarri ahal izateko.

Kontuan izan behar dugu autobus hauek fakultate aurrean geratzen direla eta erosotasun hori Eusko Trenbideak-ek bakarrik eskaintzen duela. Bai, oso ondo. Baina nire diruaren ordainetan gutxienez astindurik gabe joatea gustatuko litzaidake, eta horrela Donostiara iritsi arte lotan joatea lortuko nuke, beharbada. Nahi dudanean esnatzeko eskubidea eskatzea ez da gehiegi, ezta?



Esther Martinez



Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka	14 32 64
Polikiroldegia	86 20 21	Tren geltokia	86 11 27
Gurutze gorria	86 10 93	Taxi geltokia	86 13 60
Udaletxea	86 02 50	Bake epaitegia	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	86 22 00	Posta	86 15 00
Osasun zentrua	86 08 62	Udaltzaingoa	86 18 70
San Juan Egoitza	86 12 73	Pilotalekua	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	86 17 00	Larrialdi zerbitzua	46 11 11
Musika eskola	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	86 02 48
Alkoholikoen senideak	47 54 03	Sexu-informazioa	32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



Tan-tan!! tanborrada

Zumaiako Udal Txit Goreneko festen antolaketa batzordeari:

Kaixo antolatzaile agurgarriok!!

Zuengana zuzentzea erabaki dut, San Telmotako tanborrada "handi" eta "berezia" denari zein arreta gutxi eskaintzen zaion kontura zaitezten. Egoera honen aurrean tanborradako partaideok inork ulertzen ez gaituen biktima gisa sentitzen gara. Bazterturik eta Jainkoaren laguntzaren zain utzi diren biktimak, gure santu ohoregarriari eskainitako festa egitarau zoragarri eta berdinek gabearen barruan, nire ustez ekitaldi nahiko garrantzitsua den horretan parte hartzea erabaki dugun biktimak.

Sarreratxo honen ondoren, aipatu nahi nizuke, besteak beste, material falta dela dugun arazoetako bat.

Jaun-andreok: ez daukagu makilik!! Jotzeko orduan kontu handiarekin ibili behar izaten dugu, bi makiletako bat puskatuz gero, beharbada ekitaldi bereziaren egunean beste zerbaitekin jo behar izango dugulako. Ez dagoela makilak erosteko aurrekonturik? Ez didazue ziri hori sartuko, ez.

Beste adibide bat ere aipatu nahi nuke. Anplifikagailu zoragarri baten jabe gara, eta irrati-kasetari konektatuz behin-behineko udal bandaren

lanak egiten dizkigu. Ez da nire asmoa banda zoragarri hau kritikatzea, baina gure zoritxarrerako anplifikagailu mundiala gaixotu egin da pixka bat, eta ez du bere eginkizuna betetzen, hau da, anplifikatzea. Baina jaun-andreak, ez zaitezte kezkatu, tanborradako partaideon artean, botikan bezala, denetik baitago; eta zorionez, lehen entseian gure artean zegoen elektrizista batek, makilen ordeztu guraizeak eta soldagailua harturik (bila joan ondoren, noski), katxarroari soinu pixka bat aterarazi eta entseiuari ekin ahal izan genion. Hau aurtengo kontutxo bat besterik ez da, baina azken urteotan larriagoak ere gertatu dira.

Ah! Lerro hauek irakurtzen dituenak jakin beza entseiuak dagoeneko hasi direla. Eta haxe da aztertu nahi nukeen bigarren puntua.

Gauean hain goiz ixten dizkiguzuen eta soinua besterik ateratzen ez omen duten taberna horiek izan dira aurtengo gure informatzaile nagusiak, gure zuzendaria den Agustin Zubimendi jaunak karteletan josi behar izan baitzituen entseiuak hastera zihoazela jakinarazi eta jendea parte hartzera gonbidatzeko. Itxura denez, EL DIARIO 8 lerro xixtrin eskaini zizkiguten, eta nazkatuta gaude Zumaiakoko jubentilek Zarauzko

Antoniano 4 eta 2ko kontudentearekin irabazi dietela irakurtzeaz, gainera izenburu nagusian eta mutilen orrialde erdiko argazki eta guzti. Lotsagarria! Ez gaude futbolaren aurka, baina tanborradako partaideok informazioa emateari dagokionez arreta handixeagoa merezi dugula uste dugu.

Gure kokalekuaren kontua ere aipa nezake, baina orain arte esan dudana aintzat hartuko balitz hurrengo urteetara begira lorpen garrantzitsua izango litzateke.

Ez nuke gutun hau amaitu nahi Agustin Zubimendi gure zuzendari jauna zoriondu gabe, erakusten duen ardura eta interesagatik, eta batez ere, pazientzia izugarria duelako.

Eta antolaketa-batzordekoek, pixka bat gehiago "bustitzea" eskatuko nizuke, partaideok eta guztion gau berezi horretan hain urduri egoten garen zumaiar denok nahikoa bustitzen baikara, tanborradan parte hartuz eta gure herriko festa onenetan urteroko bixita egiten digun euria dela medio.

Agur.

GORA SAN TELMO.

FRAN BARROSO.

NAN: 44.139.059



ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



Zerbitzu Ofiziala
ZUMAIA MOTOR

Santxo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143

ZALLA
Taberna - Erreteria

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
*Armairu enpotratuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505



Artadi auzoa
Tel. 862189



FELIX AIZPURUA

San Telmotako...

*Plantxatu ta ipini
ohi naute lepuan
tokiz aldatzen naute
txispatutakuan
beso ta belaunetan
batzuek buruan
bi besotan zabalik
kofradi onduan
San Telmotako festak
bukatutakuan (Bis)*

*Dotore natorkio
traje urdiñari
ez nazazula eman
lagun berriari
ligatu berri dezun
neska-mutilari
ta ni ze kristo naizen
asmatzen dunari
Basustan izango du
afaia opari (Bis)*

35 orduak eta gure jarrerak

Azken aldiotan komunikabideetan etengabe ari gara entzuten 35 orduko lan asteari buruzko berriak. Langabeziari aurre egiteko neurri gisa planteatzen da.

Ez dut erreibindikazio horren gorabeheretan sartu nahi. Ez dut neurri horren bidera-garritasunean eta eraginkortasunean sartu nahi. Lerrotxo hauetan jarrerei buruz hitz egin nahiko nuke: gobernuarena, patronalarena, langileena eta baita sindikatuetako aparatuen jarrerei buruz ere.

Gobernuak esaten du ekonomia ondo doala, hazten ari dela..

Patronalak ez du amore ematen. Gainera, jo eta ke ari da flexibilitate laboral gehiago eskatzen, soldaten flexibilitatea eskatzen. Zertarako? Konpetitiboagoa izateko, noski.

Langileen klasea, berriz, geldi-geldirik dago zenbait gauzen aurrean: lan egunak luzatu egiten dira, milaka eta milaka ordu estrak sartuz; toki batzuetan laugarren erreleboak sartzen ari dira; kontratuak tenporalak izaten dira, "a la carta"; bitartean produktibitatea igotzen eta igotzen ari da, ez dakigu noraino.

Eta azkenik, aparatu sindikalen jarrera aipatu behar da: beraien arteko "tribu" borrokatan sartuta daude, beraien kontraesanak gaintitu ezinik... Zeren, gauza bat garbi dago: ordu estrak sartzen ari direnako askok poltsikoan daramate sindikatuko karneta, eta mugimendu sindikalaren zati garrantzitsu batek kolaboratu egiten du egoera horretan.

Arazoa oso zaila da, konplexua. Ez dago formula magikorik langabezia desagertarazteko. Langileok ondo ezagutzen dugu egoera hori, errealitate horretan bizi garelako. Eta horregatik badakigu 35 orduetako eta horren praktikari buruzko eztabaida utopikoa eta urruna dela. Agian bertan inplikaturako agente sozialek beste jarreraren bat izango balute... baina gaur egun elkartasuna eta antzeko jarrerak ez daude modan, ez horixe!

JULIO URQUIZA



TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089

TALKI-MENDI
DEKORAZIOA

* Eskaiola
* Pintura
* Pladur
* Erreformak oro har

ERAKUSKETA: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

Txosnak bai, baina edozein preziotan?

Fidantza eta seguru bat eskatu zaie txosna jarri nahi dutenei

San Telmotako jaiak gain-gainean ditugunean, txosnen inguruan gorabehera bat baino gehiago sortu da. Eusko Jaurlaritzako dekretu bati kasu eginez, herriko jaietan txosna jarri nahi duten guztiei ehun mila pezetako fidantza eta seguru bat eskatu zaie. Baldintza hauek talde batzuei txosna jartzea edo ez birplanteazaz diete.

San Telmotan txosna bat jarri nahi duten talde guztiei muturreko galanta eman diete. Eusko Jaurlaritzako dekretu batek dioenez, txosnaren bat jarri nahi duenak 100.000 pezetako fidantza bat eta seguru bat izan beharko dute. Baldintza hauek urte honetan sartuko dira lehen aldiz indarrean. Txosna jartzeko interesatuta dauden talde guztien iritziz, baldintza hauek gehiegizkoak dira, gogorregiak. Horregatik, Udalari hauek alda ditzatela eskatu diote. Lau dira txosna jarriko duten taldeak: Gazte Batzordea, Jarrai, Ikasle Abertzaleak eta Gestorak.

Beste kontzeptu batzuetan ere murrizketa batzuk ekarriko ditu dekretu horrek, ordutegien aldetik batez ere. San Telmotako jai hauetan, gehienez ere 3.30ak arte egongo dira irekita txosnak; ordu horretan, argi



indarra kenduko duen aparatu bat jarrita egongo da. Bestalde, ixten denetik irekitzeko ordua iritsi arte, gutxienez sei ordu igaro beharko dira.

Beste tabernetan bezala, 18 urte azpiko gazteei ezingo zaie eman ez tabako ezta alkoholduen edaririk ere. Txosnetako instalazio elektrikoa, arduradunen esku geratzen da eta sortzen diren zabor eta zikinkeria guztia kontenedoreetara jaurti beharko da poltsa itxi batzuetan.

Txosnak Gernikako parkean

Eguneko jarduna amaitutakoan, txosnetako arduradunek barnealdea eta kanpoaldea garbitu beharko dute. Hauek dira besteak beste txosnak ezartzeko bete beharreko baldintzetako batzuk. Aurten aipatu, txosnak jartzeko lekua Gernikako parkea izango dela seguruenik, eta ez Julio Beobide Ibiltokia iaz bezala. San Telmo

hauetan ordea, txosnen inguruan eszenatoki bat muntatu nahi da, eta beharbada honegatik, Gernikako parkean leku nahikorik ez egotea gerta liteke.

Txosnen inguruan, betidanik izan dira arazo eta ika-mikak. Orain dela urte batzuk arazoa txosna bera jartzea zen, ondoren alkoholik gabeko edariak ez saltzea zen ezarri nahi zen baldintza. Bai bat eta bai bestea ezerezean geratu dira.

Azkenaldian gauzak bere horretan geratuko zirela eta txosnen baitan arazoa gaindituta zegoela zirudien. Orain ordea, dekretu hau dela eta, urradura gehiago sortu dira eta ikusi egin behar honek ondorioak dakartzan edo beste askotan bezala, ez duen ezertarako ere balio.

◀ **IGOR URANGA**

BELARDENDA
SIWA
 Izaga Garcia
DIETISTA
 Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA
 Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

SOLOZABAL AUTOESKOLA


- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita

- Merkantiak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416



Larrialdie- tarako sendagi- learen aldeko batzordea desegin egin da

Gaiaren inguruko
kezka ikusten
dute, baina
mugimendurik ez



Udaletxeak ez zuen herria sendagilerik gabe utzi nahi izan eta bere gain hartu zuen honen mantenua. 96an ordea, gastu handiegia suposatzen zuela eta, atzera bota zuen sendagileak ordaintzearen erabakia. Herrian legokeen larrialdietarako sendagilearen gabeziak, zerbitzu garrantzitsu baten eskatea dakarrenez, dezenteko kezka sortu zuen kalean, eta udal-tertxera gaiaren inguruan galdetzeraz joan zen jende multzo batek batzordea sortu zuen irtenbide bat bilatu nahian.

Luze aritu dira udaletxea nahiz Osakidetzarekin tratuan eta hainbat protesta ekintza burutu dituzte. Eta egindako ahaleginak ez dira alferrikakoak izan. Zonaldea txikiagoa da orain Zestoa Azpeitiko sendagileari pasa baitzaio, Zarauzkoa zumaia-rrontzat eskuragarriagoa eginaz, eta anbulantzia Zumaian gelditzea ere lortu da. Ezin sendagilea ekarri, ordea, eta udalaren jarrera epelak eta herri-taren azkenaldiko mugimendurik ezak batzordea desegitera eraman ditu bertan ari zirenak.

Batzordekoen hitzetan udaletxeak, orokorrean, ez du behar adinako indarririk egin arazoa konpon dadin. Bestalde argi utzi nahi dute erantzun ona izan dutela herritarren aldetik, arazoa interesatzen zaiola jendeari: 3000tik gora sinadura bildu dituzte, manifestazioak oso jendetsuak izan dira, gastuetarako diru bilketa egite-rakoan mordoxka jaso zuten, eta kalean askotan gelditu dituzte gaiaren inguruan hitz egiteko. Hala ere azken hilabeteetako asanbladetara, aspertuta edo, oso jende gutxi azaldu dela aitortzen dute, eta azkeneko nekatu xamar zeudela beraiek ere.

Batzordea desegitea erabaki dute, baina argi utzi nahi dute arazoa hor dagoela oraindik eta prest leudekeela zerbait egin nahi duen edonori laguntzeko.

Gizarte Zerbitzuetan larrialdi zerbitzuak duen edozein akats salatzeko bidea ere badagoela gogorarazi nahi izan dute.

◀ ANTOKA AGIRRE

92an larrialdietarako sendagileen zentralizazioa ezarri zuen Osakidetza, herri bakoitzean sendagile bana izatetik zonalde bateko herriez arduratuko litza-tekeen sendagile bakarraren sistemara aldatuz. Honela, Zarautzen kokaturiko sendagilearen ardurapean jarri zuten Zumaia, Orio, Zarautz, Aia, Getaria, Aizarnazabal eta Zestoarekin batera.

Rosi
garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erroga garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

Hotela eta talasoterapia zentrua Itzurun-Zelaien

Lurrazpiko aparkalekua, taberna, jatetxea eta hogeit bat logela izango ditu hotelak

Aspaldi bota zituzten Amaya hotela eta Zumaia hostala.

Kostako herria izanik eta turismoaren boomarekin harritzekoa zen urteak joan eta Zumaian hotelik ez egotea, eta han edo hemen holakoren bat eraiki behar ote zuten zurrumurruak ere entzun izan dira noizbehinka.

Azkenengoez Itzurun-Zelai seinalatzen zuten, hotela eta talasoterapia zentrua jarri behar zituztela bertan. Udaltxera joan gara galdezka, Luciano Pagoegi udal arkitektoarengana, eta obrak hastekotan direla esan digu.

Duela zazpi urte jaso zuten udaltxear Carlos Peci arkitekto bilbota-

rraren eskutik eta Zorion Gojenola industrigizon irundarra buru zuen taldearen finantzaketarekin Itzurun-Zelaien talasoterapia zentrua eta hotela eraikitzeke proiektua. Jaso ere gustora, aspaldian Zumaia hotelen eskaintzan duen hutsunea betetzera baitzeturten, baina hobetu beharreko alderdi batzuk ere ikusten zituzten. Batetik hotelarako autoen sarrera oraingo bidetik labarraren ertzetik buelta guztia eman eta eraikinaren aurrealdean jiratuaz izango zela aurreikusten zuen proiektuak, eta bestetik Diputazioaren legeek hotelei eskatzen dien autoentzako aparkalekua Larretxo auzategiaren gain hortan egingo zela. Udaletxean labarraren ertzak pasiarako behar zuela ikusten zuten, eta ez autoak igotzeko, eta aparkalekuak gehiegi jaten ziola gainari. Honela, proiektuari arazo hauek konponduko lituzketen aldaketak egitea eskatu zieten honen bultzatzaileei.

Aurten iritsi zaie proiektu berritua. Planoan ikus daitekeenez bideak eraikinaren aldamen batean egiten du joan-etorri guztia, eta aparkalekua eraikinaren azpian egingo da bidearen ezkerretik honen azpian sartzen den sarbidearekin. Honela labarraren ertzetik doan bidea, eraikinaren aurrealdeko zelaiunea eta Larretxoko gaina lire uzten zaizkie jendeari eta berdeari.

Harrera, taberna eta jatetxe txiki bat izango ditu hotelak bere lehen solairuan. Gainera, logelak (hogeiren bat), sotoan eta eraikinaren aurreko zelaiunearen azpitik talasoterapia zentrua, eta honen azpian aparkalekua. Talasoterapia zentrua ez

da erabat itxia izango, zelaiuneak beheko aldea duela aprobetxatuz malda zuzendu eta leiho bat irekiko baitute itsaso aldera.

Ez da eraikin berri bat egingo, dagoena berreskuratu baizik. Hotel batek dituen beharrezko egokitu beharko zaie eraikinaren egitura baina kanpotik antzinako Itzurun-Zelaiaren berdina izango da. Lucianoren hitzetan balio arkitektonikorik ez baina balio historiko bat badu Itzurun-Zelaiak, Larretxo garai batean bere baratza, lorategi eta jauregiarekin izandu zenaren azken arrasto gisa, eta horregatik mantendu nahi izan dute.

Hotel baten beharra aspaldidanik ikusten zuten udaltxear. "Penagarria da Zumaira datorren jendea gaua pasatzera Zarautz eta Debara desbideratu beharra" dio Luciano. Hotela txikia izatean herrian izan dezakeen eragina kontrolagarria dela gaineratzen du. Talasoterapia zentruarena ere oso ideia ona iruditu zaie. Sauna, masajea eta mota guztietako bainuak izaten dituzte zentru hauek. Gauza berria dira euskal kostan, Donostian eta Hendaian zentru bana baino ez dago, baina azkar zabalduko direlakoan dago Luciano, beste toki batzuetan arrakasta handia izan baitute. Deban beste bat egitekotan dira esate baterako.

Datorren plenoan emango da obretarako lizentzia, eta legeak lizentzia ematen denetik sei hilabetetako epea ezartzen du obrarekin hasteko. Berehala hasiko direlakoan dago Luciano, aspaldidanik baitabil talde hau proiektuaren atzetik. Bi urte baino lehenago bukatuta egongo da obra. ◀ **ANTXOKA AGIRRE**

ONCE

**JOXE
MANUEL**

**Kapoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

Tel. 862347 - 861001




ILANO
LIBURUDENDA
Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuademazioak

Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

ILE APAINDEGIA

**herea
Uranga**

Etxezarreta, 19 Tel. 862342










**Kafe hauek denak...
FREXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira**

Egunero herriz-herri banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.


BAQUE KAFEA

XUABEA

**EXPRESSO
crema**

Dragatze lanak hil honetan amaituko dira momentuz

Kirol portua eraikitzeko egiten ari diren lanak apirilean amaituko dira, momentuz behintzat. Baliteke, hilabete honetan ez bukatzea erabat egin beharreko dragatze lan horiek. Hau gertatuko balitz, urria arte zain egon beharko litzateke, horrela aurreikusita baitago proiektuan. Arrazoiak da, uda hurbilduz doanez Santiagoko hondartza nahiz bere ingurunea gehiegi kalteturik ez irtetzea; horregatik, dragatze lan horiek udaldia pasatu arte atzeratuko dira. Dena den, lan hauek daramatzan enpresak epea luzatu eta maiatzean dragaketekin jarraitzeko eskakizuna egin dezake. Bitartean, kirol portuko eraikuntza lanek aurrera joko dute, baina beste zeregin batzuetan.



Gorostiagan lehen pabilioiak eraikiko dira

Hasierako egitasmoan aurreikusten zen bezalaxe, apirilean edo maiatzan hasiko dira eraikitzen lehenengo pabilioi industrialak Gorostiagako poligonoan. Osetu enpresa izango da lehen pabilioia altxatuko duena. Honekin batera, eta baimen guztiak lortu ondoren, bertako ur saneamendua jartzeari ekingo zaio berehala. Dakizuen bezala, honetarako sistema berritzaile bat erabiliko da, ur azpitik behar diren hodiak sartuz. Honen helburua, zonalde horretako ingurune naturala ahalik eta gutxien kaltetzea da.

Zumaia eta Deba arteko trenbidea irekita

Badira aste batzuk Zumaia eta Deba arteko tren zerbitzua berriro ere martxan jarri dela. Ia hiru urtez itxita egon ondoren, berriro ere zumaiarrek zerbitzu hau erabili dezakete. Erosotasun eta erraztasun handiak emango ditu garraiatzeko orduan, bereziki Bilbora joateko. Inaugurazio ofiziala martxoaren 16an burutu zen eta bertan hainbat agintari bildu zen, besteak beste, Jose Antonio Maturana, Eusko Jaurilaritzako Garraio eta Lan Publikoetarako Sailburua eta Rikardo Peña, Zumaiako Alkatea.



**ZUMAIA
OPTIKA**

Txomin Agirre kaia, 1

Tel. 143057

Denda aldatzeagatik LIKIDAZIOA


MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Juan Jose Urbieta
"Katza"
"Bizitzan
geldiune bat
egin eta
atzera
begiratu
beharra
dago"



■ Esan daiteke bizitzaren filosofia propio bat landu duzula?

Bueno, alde batetik bai, esan daiteke bizitzaren nere filosofia daukadala, baina baita ere esan daiteke horretan asko lagundu didala yogaren filosofiak eta hor ikasi ditudan ariketek. Nik ez nuke esango beraz bizitzaren filosofia propioa dudarik, bakarrik tokatu zaidala nire bizitzaren esperientzia bizitzea (motzagoa edo luzeagoa), baina gauza dexente bizitu ditut eta guztietatik ikasten saiatu naiz. Hala ere, esan daiteke ikuspuntu berezi bat badudala.

Yogak lagun-urkoa laguntzera bultzatzen zaitu.

■ Horretan yogak lagundu dizu asko.

Yoga bera bizitzako filosofia bat da. Esan daiteke yoga dela beti aurrera egite bat. Beraz esan daiteke beti egin dudala yoga, bakarrik duela 12 urte ezagutu nuela filosofi konkretu bat

yoga deitzen zaiona. Momentu horretan nire bizitzan inflexio puntu bat izan zen, puntu horretatik aurrera nere bizitza dexente aldatu da. Zerbait egin nahi nuen bizitza honi zentzua bilatzeko, ez bainion zentzurik bilatzen eta probatuta nituen denak, bai droga mundua (nahiz ta asko ez sartu hor), eskalada, submarinismoa, gurutze gorrian egon nintzan... Hor izan nuen krisi sakon bat, goizean jaiki, gauean oheratu eta hurrengo egunean berriz jaiki, eta zertarako? Soldaduzka egiten egon nintzenen krisi sakon bat pasa nuen, pareja puskatu.... eta bi urte inguruko depresio haundi batean sartu nintzen eta halako batean lagun batek aipatu zidan berak 14 urterekin yoga ezagutu zuela eta probatzeko. Nik ez nuen asko sinisten horretan, baina azkenean probatu egin nuen eta sentazio berezi bat sentitu nuen lehen egunean, beti horren bila ibili izan banintz bezala. Asko gustatu zitzaidan, eta ariketak egiten disziplina bat hartu nuen.

■ Orain irakasle lanetan zabilta.

Bai, hasi eta sei urtera nere maixuak esan zidan ea irakasle izan nahi nuen. Irakasletzarako kurtsoa egin nuen eta bukatu baino lehen Lasarten hasi nintzen klaseak ematen. Hasierako bost urteetan egon nintzen lan ordutatik kanpo klasea ematen eta duela urte t'erdi erabaki nuen niri hau gustatzen zaidala eta hau egin nahi nuela, gainera beste kurso bat egiten ari nintzen, "terapia floral de Bach" deritzona, psikologia modukoa. Psikologia litzateke psikologismo aldetik eta hau litzateke humanismo aldetik. Terapia alternatibotzat jo daiteke. Hori egiten aritu naiz hiru urtetan, eta orain terapia eta yoga, biak alternatzen aritzen naiz, yoga klaseak

Jaiotzez zumaiarra ez bada ere, zumaiar petotzat jo daiteke Arroako gazte hau.
Gazte Batzordearen sortzaile eta bultzatzaile izana, urte asko daramatza yoga irakasten Lasarteko eskolan.
Han egon gara berarekin, Yogaz, Gazte Batzordeaz eta bizitza beraz ere hitz egiten.



Nikol  **Enea**
TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

eman eta baita terapiak ere. Depresio, antsietate eta antzerakoekin dabilen jendearentzat da terapia hau.

3 Nola izaten da terapia hau?

Psikologia gehienbat izaten da gauzen zergatia, eta humanismoa gehiago da gauzak nola, noiz, zertarako... eta antzeko galderen erantzuna. Zeure buruari zergatik galdetzen diozunean, lortzen dena erantzun psikologikoa da, eta beste galdera horiek berriz, kontzientziaren bidez erantzuten dituzu, gauzetaz konturatuz. Askotan gelditu beharra dago, eta erreflexionatu gauzen zergatiaz. Zure bizitza aztertu. Gero hor yoga ariketak ere sartzen dira lagungarri.

3 Baina, yoga askotan sekta gisa kontsideratu izan da.

Bai, askotan horrela kontsideratu izan da, eta egia esan badaude sektak yoga teknikak erabiltzen dituztenak. Ez yoga bera, ze yogan oso garbi azaltzen da "Zu zeu izatearen" axioma, eta

sektetan hori ez da horrela, sektakoa zara eta ez zu zeu, beraz hori ez da yoga. Baina, yoga teknikak adibidez Hare-Krishnek erabiltzen dituzte. Denean bezela ordea, mailu bat ona ala txarra al da? Buruan jotzeko erabiliz gero, noski txarra da. Ba yoga ere erraminta bat denez berdin gertatu daiteke.

Ez dago gazte eta flexiblea izan beharrik yoga praktikatzeko

3 Zein jende mota aritzen da yogan?

Denetik. Oso gazteak ez. Hamalau urteko gazte bat ezin duzu eduki erlajutzen, nahiago duelako neskatan edo mutiletan ibili, edo bere gauzetan egon. Gehienbat jendea 18 urtetik aurrera hasten da. Gauza askotatik bueltan zatozenean, beste zerbaiten bila hasita. Hortik aurrera ez dago adin mugarik, nik andre bat daukat 72 urte

ingurukoa. Ez dago gazte eta flexiblea izan beharrik. Gehienbat etxeko-andreak etortzen dira, flexibilizatzera edo menopausiarekin batera. Gazteak gehiago etortzen dira meditatuz, filosofatu etab. egitera.

Zure bizitzan gelditu, erreflexioa egin eta distantziatik begiratu behar diozu egin duzunari, egunero egin beharreko zerbait da gainera. Yoga ordea ez da denontzako, nahiz eta denontzako baliagarria izan. Jendeak bere bizitza du eta bakoitzak bere bidea eraman behar du.

3 Baina, zer da yoga?

Yoga hiru mailaz osatuta dago. Bat Hatta-yoga deritzona, osasunaren yoga, arnasketa, erlajazioa, ariketak, eta positiboki pentsatzea. Azken honetan terapiak asko laguntzen du. Beste bi maila goragokoak daude yogan, eta hauetan gehiago esistentzialismoan sartzen gara, kharma, reenarnazioa etab. Momentu bat iristen da hiru mailek bat egiten dutena. Azken mailak teknika bakarra dauka, Kharma-yoga deritzona, ekintzari zuzenduriko yoga litzateke hau, hau da; lagun-urkoa laguntzera zuzenduriko yoga.

3 Lagun hurkoari laguntzearen filosofia horretan bildu al daitezke zure bizitzako hainbat jarrera, Gazte Batzordearen sorrera adibidez?

Bai, behar bat izan zen hori, barrutik azaltzen zitzaidan behar bat. Zumaiko gazte munduan asko mugitu naiz, eta ikusten nuen gazteak beti koadrilatan bakoitza bere aldetik ibiltzen zela. Kuadrillan komentatu, Aitor eta Josu animatu ziren eta Miriamek ere lagundu zidan, eta fotokopia batzuk egin eta bilera egin genuen. Hasierako ideia ez zen Gazte Batzordea sortzea,

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073


CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK, HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale nagusia, 3

Tel/Faxa: 143453



katza, yogako
klasea ematen.

San Telmotako komisio bat sörtzea baizik, eta nere harridura izan zen jendea bolkatu egin zela. Horrek motibazio gehiago sortu zuen eta gauzak aurrera egin zuen. Oso une politak izan ziren, joe! zenbat jende ezagutu nuen garai horretan.

Gero ordea mindu egin nintzen, batez ere udaletxearen jarrerarekin eta baita gazteek daukagun erretasun horrekin. Udaletxean nik uste dut beldurtu egin zirela eta jarri zizkiguten ahal zituzten oztopo guztiak gauzak pentsatu gabe. Hala ere, nire lana sua piztea izan zen, ondoren norbaitek zaindu zezan. Azkenean ikusi nuen nere lana eginda zegoela eta beste jende bat bazegoela ikusita utzi egin nuen.

■ Eta gaur egun, zertan zabilta?

Zentzu horretan, lagun hurkoari laguntzearen filosofiari jarraituz ere orain autopistaren mobidan nago. Yogak indarra ematen dizu, eta hori bideratzen saiatzen zara arazoetan lagunduz. Niretzako droga da kantzer

haundi bat, gaur egun, agian nahiko urretik bizi izan dudalako eta horrekin ere beti izan dut gogo zerbait egiteko.

■ Arazo ezberdinek kezkatzen zaituzte beraz.

Bai, baina hala ere badaude bi gai, ez naizena gauza sartzeko. Bat, Euskal gatazka politikoa, nolabait gaintitu egiten naudelako. Ez naiz kapaz ikusten hor sartzeko, haundiegia iruditzen zaidalako eta duda asko sortzen zaizkit, eta irteerarik ez dudalako ikusten. Eta antzera gertatzen zait kirol portuarekin. Iruditzen zait bakoitzak bere arrazoia duela eta ez daukat hor ere aukera garbi bat. Hau ere haundiegia iruditzen zait.

Iruditzen zait guztiak ari direla lanean, eta guztiek gauzak egiteko gogoak dituztela. Zumaia Bizirik-ek gauzak lortu dituela iruditzen zait nahiz eta portua egin, kontzientzi garrantzitsu bat sortu dutelako. Nik biei emango nizkieke zorionak. ◀ **JOSU WALIÑO**

Maiaur



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



AIZPURUA

LIBRERIA

opariak

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569


KUKUTZ
serigrafia

- kamisetak
- txiskeroak
- paperezko poltsak

Tel. 860569
Baltasar Etxabe, 7



Tel. 143379



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517

Herriko antzerkia San Telmo-tarako

Itzurungo uhinak taldeak antzezlan berria aurkeztuko du

Monjetako antzokia ilunpetan dago, eszenatokia baino ez dute argitzen fokoek. "Mari Axun!, uste det trena badatorrela, mugi!" esaten dio Itziarrek Maritxuri. Gainontzekoak lehenengo bi iladatan daude eserita, hurrengo eszenara arte ez dute igo beharrik. Gehienak eskola garaian egindako emanaldietatik ez dute antzerkia egiteko aukerarik izan, eta gustora ari dira antzezlan honekin, aspaldiko gogo bat betetzen. Dantza egin behar deneko eszena batean Ane eta Txominek jarri dute banda sonora, eta Jonek zapata indar gehiegi-rekin bota duen batean sustatu gara lehenengo iladakoak. Hilaren 18 eta 19-an 'Beti geratzen zaigu Paris' antzezlanaren hiru emanaldi egingo dituzte zinean. "Mejoratu beharra dago, baina oso ondo" esan die Tolok entsaioa bukatutakoan.



"Beti geratzen zaigu Paris" antzezlanaren entsaiotan.
A. Agirre

Pentsiodunei antzerkia egiteko aukera eskeintzeko sortu bazen ere zaletasuna duen zumaiar orori irekita dago *Itzurungo uhinak* taldea. Laupabost antzezlan eman dituzte, guztietan ere zinea nahiz monjetako lokala goraino betez, herritarrek eszenatokian ikusteak sortzen duen morboaz gain ondo egiten baitute antzerkia. Jende mordo pasatu da taldetik, eta atera dira profesionalak ere. Hor dabilta ETBn Karmen Balentziaga eta Jon Alzibar. Duela zazpi urte eman zuten beren azken antzezlan, 'Jesusen jaiotza' izenekoa, eta Pentsiodunen Egoitzaren 25. urteurrenaren ospakizunetarako berriro ere martxan jartzea erabaki dute.

'Beti geratzen zaigu Paris' dauka izenburutzat antzezlan berriak. Bertan, geltoki batean Benidormerako trena hartu behar duten pentsiodun batzuren istorioa kontatzen da. "Eta pixkat rebeldea ere bada kontu honekin, aukera gehiago eskatzen ditu nolabait" esaten digu Tolok. Ikutu humanoa duen komedia ero bezala definitzen du generoa. Antzezlanaren egilea Nagore Aranburu azpeitiarra da, 'Jaun ta Jabe' eta 'Maite' telesaioetan ari den aktore gaztea. Antxieta taldean elkarrekin ibilitakoak dira Nagore eta biak, eta Toloren bidez egin dute kontaktua.

Beraientzat propio idatzitakoa da antzezlan.

Lantaldea 'Jesusen jaiotza' egin zuen bera da. Zuzendari Inaxio Tolosa, zuzendari laguntzaile Ane Osa, argiak Aitor Bayo eta jantzi, makilaje eta bestelakoak Pili Egiguren, Mari Paz Agirrezabalaga eta Inaxio Alberdi. Eszenografiaren diseinua Maria Luisa Urbietak egin du, eta pentsiodun talde batek lagunduko dio guztia montatzen. Beti oso ondo funtzionatzen duen ekipo bat dela dio Tolok, "lujo bat dira guretzat".

Benidormera joan nahi ez duen pentsiodunaren istorioa kontatzen da.

Jon Alzibar, Maritxu Etxabe, Txomin Plazaola, Luisa Mari Aristondo, Itziar Arrieta, Miren Laskibar, Elvira Montero, Migel Manterola, Maria Luisa Eizagirre eta Pello Muniozguren arituko dira aktore lanetan. Aurpegi berriak dira gehienak. Taldea osatzeko Pentsiodunen Egoitzan eta lantaldekoen ezagunen artean aritu dira tanteatzen. Ez dute jendea topatzeko arazo handiegirik izan, "Zumaiak mina bat ematen du, beti ateratzen da jendea" komentatzen du Tolok.

Lehenengo esperientzia dute gehienek. Edo hobeto esanda

bigarrena, guztiak eskola garaiko emanaldietan parte hartutakoak baitira. Itziar ondo gogoratzen da Luistarretan egin zuten antzezlanaz, Luisa Marik lenengo aldia omen du dialogoarekin, eta Maritxuk gogoa beti izan duela aitortzen du, baina aukerarik ez. Dudarik gabe Jon da beteranoena. Zortzi urterekin hasi zen Don Emilio Larrañaga organistarekin 'coreografias' batzuk egiten eta hamalau urterekin Jose Etxabe Olaizolarekin drama bat estreinatu zuten Zarautzen. Soldadutzatik bueltan berriz, 'Las grandes fortunas', 'La muralla', 'Anacleto se divorcia' eta holako mordoxka bat herriko talde batekin. Miren Laskibar eta bera dira *Itzurungo Uhinak* taldearen aurreko emanaldiren batean parte hartutako bakarrak.

Entsaioan ikusi ahal izan dugunez umorerik ez zaie falta eta ondo konpontzen dira elkarren artean. "Primeran" diote. Gustora daude guztiak esperientziarekin. Hala ere dagoeneko urduri xamar dagoela aitortzen du Luisa Marik. "Sinistu lua galtzen detela gabian. Oherakuan rebista hartu eta lua sartzen zait, baina argia itzalduta eta han hasten naiz nere dialogoarekin bueltaka. Danakin akordatzan naiz gainea!, eta gero hemen aztu." kontatzen du. Itziarrek bakarrik dagoenean sukaldeko atea itxi eta lau tonu desberdinetan errepikatzen omen ditu esaldiak, gero gehiena gustatzen zaiona aukeratzeko. Baina ez omen du lorik galtzen. "Musika eskolakoekin zinean kantatu izan degunian ez naiz nerbiosoa jarri eta orain ere hala izatea espero det" dio Maritxuk, "ilunpea ikusi eta, ba, hemen ez do inor!". "Irakurri izan det gai honen inguruan" sartzen da Jon "badaudela pianista birtuosuak etxean primeran jo arren eszenarioa erdendakoan erabat galdu egiten diranak, eta badaudela talentu gutxi izan arren eszenaioan izugarri jotzen dutenak ere". "Aktore guztiek komentatzen dute erten aurreko momentuetan nahiago izaten dala Parisen edo Txinan egon, baina behin

lehenengo esaldia botatzerako gustua hartzen hasten zea, eta ordun pena aldeiteko. Hori da antzerkiaren benenoa." lasaitzen du Tolok Luisa Mari.

Gabonetan banaketa egin zuten eta urtarrilean hasi ziren irakurketekin. Gero Forondan aritu ziren irakurketak tente egiten, eta otsailaren bigarren erditik aurrera Monjetako eszena-tokira igo dira astean bizpahiru entsaio egitera. Gaur lortu dute lehenengoz antzezlan osorik ematea. "Oraindik ere erdi bide batean daude" dio Tolok, "hasi dira eszenak martxa hartzen, baina lan gehiago behar da abiadura eta tonu egokiak lortzeko".

***Itziarrek bakarrik
dagoenean
sukaldeko atea itxi
eta lau tonu desber-
dinetan errepikatzen
omen ditu esaldiak.***

"Eguna iristen denean ondo aterako da" bukatzen du Tolok. "Y tu bazparral loro para soplar!" botatzen dio Itziarrek Aneri, entsaioetan Ane baita, gidoia eskuan, ahazten zaionari karretila ematen diona. Garai bateko antzezlanetan apuntadorea bere kontxan gordeta egoten bazen ere, gaur egun holakorik ez dagoela konturatu dira segidan, baina lasai egoteko esaten die Anek, ordurako bere ahotsa off-ean ere entzungo dutela. "Bestela ikusita dauzkatz kulebroietan txitxare moduko batzuk belarrian jartzen dianak" segitzen du Luisa Marik. "Badaude baita mikroak ere ilean jartzen dianak" Txominek.

Emanaldiak hilaren 18 eta 19an izango dira. 18an, larunbata, arratsaldeko 6etan umeentzako eta gaueko 10etan helduentzako. Azkena 19an gaueko 10etan.

Irabazten duten diruarekin Parisa joango direla dio Txominek. Baina batzuek nahiago dute Benidormera joan.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**



Erribera kalea, 20



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A

Tel. 862081

*Jesuskoa
Jatetxea*



Tel. 861739
OIKIA
ZUMAIA



**Loredenda
JEMAR**

**LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK**

Erribera, 1

Tel. 860375

julio curiel



PELUQUERO

*Gizonezkoentzat
ileapaindegia*

Erribera kalea, 23


Joseba Ossa

ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingelesa . frantsesa

Tel./Faxa: 148306

E-mail: bakun@encomix.es







Mikel Igoa

Bai,
eta beti negatibo eman izan
dit. Gainera ni ados nago
kontrolekin.



Aitor Martiarena

Bai. Positibo eman zidan eta
Eibarrera atxilotuta eama
niñuten. Handik aurrera,
kotxea hartzen badet
behintzat ez
det alkoholik edaten.



Jesus M.ª Arrona "Napar"

Bai,
eta negatibo eman zidan.
Baina ez naiz egoten kezkatuta
berriz egitea posible dela
pentsatuta; tokatzen bada
tokatzen da eta positibo
ematen badu,
positibo ematen du
eta kitto.

alkoholemiarik egin al dizute inoiz?



Iñaki Uranga

Bai, gainera bastante
mozkortuta nihoan eta ez
zidan positibo eman.
Batzutan kontrolatzen det,
bestetan ez.



Susana Korta

Kasualitatez ez didate geratu.
Lehen, poteoan ibiltzen
ginanean gidatzen zihoanari
"de todas todas" gelditzen
zioten. Baina kotxea eaman
behar zuenak lehenago
uzten zion edateari.



Ihintz Linazisoro

Ez. Nere aitan kotxiakin
ibiltzen naiz eta
kontuan eukitzen det
edateko orduan Kotxia neria
izango balitzake desberdina
izango litzake.



Maite Sagardui

Bai, eta negatibo eman
zidan. Egia esan
kontrolatzen degu eta
nere ustez emakumeak
gizonak
baino gehiago.



Urtzi Gabiña

Ez daukat kotxeik,
ez zait inoiz tokatu. Baina
gidatzen juatendanak
kontrolatzen du.
Kontrolatik ihesteko
autopistatik jun bihar
izaten bada, hori ere
egiten degu.

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
- .Banakakoak
- .Kolektiboak
- .Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569

Kadete mailako PULPO ZKP taldea Euskadiko onena

Espainiako talde
indartsuenekin
arituko da liga
irabazi ostean

*Kadete mailako Pulpo ZKP
mutilen eskubaloit taldeak,
denboraldi borobila burutu
du eta liga txapelketa erraz-
tasun osoz irabaztea lortu du.
Euskadiko talde boteretsuena
izanik, orain Espainiako
ekipo indartsuenen aurrean
gogor borrokatu beharko du,
Estatuko Txapelketa
poltsikoratu nahi izanez gero
behintzat; hau ordea, beste
kontu bat da, egia bihurtzea
oso zaila gertatuko dena,
gainera.*

Orain arte, denboraldi osoan partidu bakar bat galduta (Bidasoaren aurka), Kadetetako Pulpo ZKP taldea oso sendo agertu da. Talde moduan joku maila bikaina erakutsi du eta jokalariai banan-banan hartzen hasita, berehala ohartuko gara kalitate handiko kirolarien aurrean aurkitzen garela, nahiz eta oraindik oso gazteak izan.

Datu batzuk ematen hasiz gero, Pulpo ZKP-ko hiru jokalaria Euskadiko selezioarekin aritu ziren Espainiako Txapelketan. Hirurek ere oso paper ona burutu zuten: Xabier Letamendia atezaina, txapelketako onenetakoa izan zen, Borja Aginagalde hegaleko jokalaria, goleatzaile fina dela erakutsi zuen eta Peru Fernandez de Arroyabe zentrala berriz, txapelketa osoko jokalaria onena izendatu zuten.

Hiru jokalaria hauek osatzen dute taldeko bizkarrezurra, baina ezin dira inolaz ere ahaztu beste jokalariai. Beraiek gabe ezinezkoa litzateke aurtengo denboraldi paregabe hau burutzea. Abel Yeregi taldeko entrenatzaileak azaldu duenez, ligan ondo ibiltzeko esperantza bagenuen, baina hain ondo ez. Azken urteetako lanaren fruitua izan da denboraldi hau".

Mailari eutsi

Liga Txapelketa irabaztea lortu dute eta lorpen honekin gainera, Euskal Liga deritzon mailari eustea ere bai. Maila mantentzeko, jubenil eta



kadeteen sailkapenak hartzen dira kontuan. Jubenilek partidu bakarra irabazi dute, kadeteek bakarra galdu duten bitartean; azken hauei esker posible izango da beraz, bi taldeek datorren denboraldian ere Euskal Liga horretan jardutea.

Orain, ordea, denboraldiko urrats gogorrenari egin beharko diote aurre. Kadetetako Pulpo ZKP taldea, estatuko talde onenekin aritu beharko da Espainiako Txapelketan. Lehendabizi, aurrengo fase bat jokatuko da maiatzaren 21 eta 24 artean eta konpetizio honetan penintsula erdialde eta iparraldeko talde nagusienekin jokatuko dute zumaierrek. Multzo honetan lau talde izango dira, eta hemendik lehen postuan geratzen denak titulua eskuratzeko azken fasea jokatuko du Mallorcan, aurtengo ekainean. Abel Yeregiren esanetan, aukerak badiugu hor aurrean ibiltzeko, baina horretarako zortekak ere zeresan handia du. Gainera, ikusi egin behar nolako taldeak tokatzen zaizkigun gure multzoan. Zentzu honetan, errespetu gehien Kataluniako ordezkariak diela adierazi du entrenatzaileak. ◀ IGOR URANGA



Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373



ilargi
kontzertuz eta musikaz blai

Alai auzategia, 2 Tel 143324



Axier Kirolak eta Hiru Ezkur taldeak plaierotako ligako txapelketaren bila

Mendi Ondo eta Txikixa Pub izango dira Kopako finalean

Apirilaren 18an jokatuko dira aurtengo plaiero txapelketako azken partiduak. Ez da inolako ustekabekorik izan, eta finaletan faboritoak genituen taldeak izango dira aurrez aurre. Ligan, Hiru Ezkur taldeak Axier Kirolaken aurka arituko da eta Kopan berriz, Mendi Ondo Txikixa Pub taldea mendea hartzen saiatuko da.

Abiada bizian joan zaigu urte honetako plaieroetako txapelketa eta dagoeneko, finalak jokatzea besterik ez da falta. Ligako bigarren faseko sailkapenean Hiru Ezkur izan dugu lehenpostuan, Axier Kirolak bigarren, Basterrikalde hirugarren eta laugarren Kabi-Genelek. Kopan berriz, Txikixa Pub izan da nagusi, Ekin Buitrakerren aurretik, hirugarren Mendi Ondo sailkatu da eta laugarren Ipurbeltz Gaztañaga taldea.

Hau horrela, lehenengo sailkatuak laugarrengoaren aurka jokatzen zuten, finalerdiak horrela geratu ziren: Ligan, Hiru Ezkur-Kabi Genelek eta Axier Kirolak-Basterrikalde; Kopan berriz, Txikixa Pub-Ipurbeltz Gaztañaga eta Ekin Buitraker-Mendi Ondo zuten.

Baina bigarren faseko azken jardunaldian, Ipurbeltz Gaztañaga eta Ekin Buitrakerren arteko partidua, legeko denbora bukatu aurretik bertan behera utzi zuen epaileak, bere iritziz, Buitrakerrekoek kiroltasunik gabeko jarrera erakutsi zutelako. Honen ondorioz, antolatzailerik talde hau txapelketatik kanpo utzi eta bere ordean, Kopan bostgarren geratu zen Inpernupe taldeak, Txikixaren aurka jokatu zuen finalerdia.

Ustekabekorik ez

Final aurreko horiek uste bezala joan dira eta faborito zirenek jokatuko dituzte finalak. Ligan, Axier Kirolak Taldeak estuasun apur batekin irabazi zion 2-1 Basterrikalderi eta Hiru Ezkurrek erraz menderatu zuen Kabi Genelek taldea, 6-2. Kopan, Mendi Ondok 4-1eko emaitzarekin hartu zuen mendea Ipurbeltz Gaztañaga eta Txikixa Pub taldeak berdin egin zuen Inpernuperekin. Azken emaitza, 2-0.

Beraz, finalak honela geratu dira: Ligan, Axier Kirolak Hiru Ezkurren aurka eta Kopan, Mendi Ondok Txikixa Pub taldearen aurka jokatuko du. Lehenengo partidua horretan, Hiru Ezkurrekoak ditugu faborito, baina bigarrenengo final horretan edozer gauza gerta daiteke. Azken partidua hauek, hil honen 18an jokatuko dira arratsaldeko 3retan.

Bukatzeko aipatu, Zalla Erretegia talde zumaiarra Zarauzko plaieroetako txapelketatik kanpo geratu dela. Bigarren faseko azken partidua erraz irabazi arren (3-0), ez ziren finalerdietan sartu. Zalla Erretegia final aurrekoetatik kanpo geratzen den lehen aldia da aurtengo hau.

◀ IGOR URANGA

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ILEAPAINDEGIA
FRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 860760



Erribera kalea Tel. 861523

IHINTZA
taberna



Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079


English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334

Pala txapelketa bigarren fasean sartu da

Hasierako ligaxka amaitu ondoren San Pedro Pala Sariko partehartzaileek bigarren faseari ekingo diote hilabete honetan. San Pedro

izeneko faserako sailkatu diren hamabi bikoteak bi multzotan banatu dira eta gainontzekoak berriz, San Pedrinen aritu beharko dute. Ez da ustekabe handiegirik egon eta aurreko urteekin alderatuta, aurtengo txapelketa orekatua doa. Azken urteetan ez bezala, Imanol eta Jabi Arratibel oikiarrek ez dute bikotea osatu eta honek txapelketan berdintasun gehiago eragin du. Orain arte ikusitakoaren arabera, Gorostola-Aizpuru, Ostolaza anaiak, Elustondo-X. Uranga, Alkorta-Urbiet eta J. Arratibel-Irureta bikoteak azaltzen dira indartsuen baina beste batzuk ere zeresan handia eman dezakete. Lehen aipatutako Jabier eta Imanol Arratibelek ere, bikote ezberdinetan aritu arren, finalerdietan sartzeko aukerarik badute. Ikusiko dugu zer gertatzen den.



Trintxerpe garaile Zumaian

Martxoaren 28an Gipuzkoako Ligako trainerilen hirugarren estropada jokatu zen Zumaian. Guztira, 16 taldetako untziak bilduziren eta azkenean garaipena Trintxerperentzat izan zen. Zumaiarrek bi untzi atera zituzten eta biak erdialdean sailkatu ziren. Zumaia A untzia 14. tokian geratu zen eta Zumaia B aldiz 16. ean. Luis Mari Goikoetxea presidentearen esanetan, oraindik ez dute untzi sendo bat aurkeztu, arraunlari guztiak nahastuz dabilta. San Telmotako jaietan ordea, Zumaian berrir burutuko den trainerilen estropadan, talde onena ur gainean jartzeko asmoa dute.

Laburrak

Itxas-Gain primeran.

Itxas-Gain taldekoek beren nagusitasuna hasi dira azaltzen. Denboraldia hasi dela ez da denbora gehiegi igaro eta dagoeneko bi txapelketa garrantzitsu eskuratu dituzte. Alde batetik, Zumaian jokaturako proban, Itxas-Gain Taldea Gipuzkoako txapeldun bihurtu zen 5.000 metroko distantzian. Bestalde, distantzia berdinean Euskadiko txapelketa eskuratzea lortu du Bidasoako uretan. Bi probetan taldea nagusitu eta banan-bana ere palista zumaiarrek lasterketa dexente irabazi dituzte. Euskadiko Txapelketa horretan gainera, Oier Aizpuruak parte hartu zuen. Gogoratu, gazte zumaiar hau Pontevedran dagoela Munduko Txapelketa prestatzen. Oraindik ez da segurua bertan parte hartuko duen, baina orain arteko emaitzak lortzen jarraituz gero ia ziurtzat eman daiteke bere partaidetza Munduko Txapelketa horretan. Arrakasta handia litzateke bai beretzat eta baita Zumaiako piraguismoarentzat ere.

Garaipenak txirrindularitzan.

Txirrindulari zumaiarrek errepideko denboraldi hasiera polita egiten ari dira. Beristain taldeko Gaizka Gonzalezek jubeni mailan lehen garaipena lortu du eta Ander Odriozolak berdin egin du kadetetako lasterketan ere. Ia ba Zumaiako ordezkariak denboraldi osoan zehar garaipen gehiago lortzen dituzten.

IndaMendi eguna

Aurten ospatzen ditu Inda Mendi M.B.k bere zilarrezko ezteiak. Ospakizunen data oraindik zehaztu gabe baldin badago ere, ziur da maiatzaren 3an egingo dutela ohi duten Inda Mendi eguna.

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

GANBARA
TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57



San Telmoak 98

*Pom porrom, pom porrom...
heldu dira San Telmoak.
Armairutik alkondara urdina
atera, painelua lepoan jantzi,
aurrezki kutxatik dirua atera
eta kalera! Urtero bezala
festetarako programa
antolatu da, nahiz eta egia
esan jendeari asko ez inporta,
badakigu eta guri gehien
gustatzen zaiguna taber-
netako giroa dastatzea dela
eta ahal den beranduen
etxeratzea. Hala ere festen
egitaraua inporta zaion
norbait egongo denez, hona
hemen gure ustez interesga-
rriena dena.*

Ostiral gauean, 17an gaueko 10,30etan bertso jaialdia izango da Aita Mari aretoan. Laxaro Azkunereren gaiei Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Xabier Euzkitze, Jon Maia eta Mikel Mendizabalek erantzungo diote.

Larunbatean, txupinazoaren ondoren, musikaz lagundurik zankoeekin eginiko koadrilen jeitsiera izango da San Telmo ermitatik behera. Ondoren Bazkari Herrikoian jan ondoren, batzuk Herri Kirolekin ari diren bitartean, hondartzan futbol txapelketako azken partiduak jokatuko dira. Gauean, 10etan Aita Mari aretoan Beheko Plaza jubilatuko elkarrekin "Beti geratzen zaigu Paris!!" antzezlanaren taularatuko du. 11etan berriz, txosnen inguruan rock kontzertua izango da.

Igandean, gaupasa egin dutenentzat txokolatada izango da eta ondoren zezenak hondartzan. Eguerdian Udaltxistuari Bandaren kalejiraren ondoren Beti Gazte dantza taldearen eskutik euskal dantzak izango ditugu kofraian Bazkaldu ondoren, mus eta futbolin txapelketa, buruhaundi eta erraldioen kalejira eta Gorriti eta bere abereekin gozatzeko aukera izango da. etan Kepa eta Robertoren trikitixa kalejirari jarraituz Batzokiko aparkalekuan sardinajana izango da. Gauean, beriz, Tanborradaren ondoren, Xabier Saldiasen Egan Berriarekin dantza egiteko aukera izango dugu.

San Telmo egunera heldu gara, astelehenera, eta giltzea pasatzeko egun egokia dela dirudi, meza, prozesioa eta haur jaialdiaz aparte ez baitago gauza haundirik.

Asteazken zehar lan pixkat egin ondoren, repetizioak izango ditugu gainean.

Larunbatean goizetik hasiko dira ekintzak. Larretxoko plazan haurrentzako jokoak izango diren bitartean, helduagoentzako Poteo bizikleteroa egongo da. Esfortzuaren ondoren tripa beteko dugu Bokadilada kolektiboaren bitartez. 4retan piraguitsek kirola nola egiten duten ikusiko dugu, Udaberriko piraguisimo saria baita. Arratsaldean tabernaz taberna ibiliko gara Sama Siku fanfarreari jarraituz. Gauean, Zesta Puntako IX. San Telmo sariko finalak izango dira. Frontoitik ateratzean Itxas Gain txaranga egongo da giroa berotzen. Gauean, berriz Basakabi taldearen dantzaldia izango da Beheko plazan.

Igande goizean bideo kamarak kea dariola egongo dira Haurren danborradan hauek danborrei dale-ke-te-pego doazela. Arratsaldean berriz ere kirola egingo dugu trainerotxuen estropada ikusiz eta gauean Oihergi musika taldearekin festei agur esango diegu. Buuuuuuu...!!!

◀ JUAN LUIS ROMATET



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrikoi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea


Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

Galdona



Mendara marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxe, 861330



Mertxe

Erribera kalea, 6

Tel./Faxa: 861707

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezaretza, 6

Tel. 861078



ENTER
INFORMATIKA

Ordenagailu salmenta
zerbitzu tekniko
hardware eta software
informatikako kurtsoak

Tel. 861175

Baltasar Etxabe z/g

Faxe: 860550

Itziar Treku

"San Telmo kalia oso popularra zan"

Mielantonenekuen entradan juntatzen giñan gazte danak. An bazan alaba bat Joxepantoni izena zuna, preciosa, amabirjiña baten antza zekan, ta daneako lixto zeon emakumia. Ark organizatzen tzitun gure kaleko pesta danak. Ark anaixa bazekan, abilla, ieltserua zan baña, arkuak eta iten da, nolako arkuak eokitzen zitun San Telmo kaliak sasoi batian, nolako arkuak! Urte batian gobernadoria zetorrela San Telmoa ta, nola prepaatu! Sariak ta izariak jarri baztar danetan, sariak batel aundixa jarri ta, antxoak txintxilika zitula ta... Girnaldak berdiakin iten giñuzen. Juten giñan Zelaiaena berde aen billa, karruakin ee?, baña gaztia dana. Ta bandera txikixak iten giñuzen, ta banderakin ta girnaldakin kale dana apaintzen gendun. Oain ez taona, oain iñorrez!

San Telmo bezpera etortzen tzanian, kanpaiak jotzen zituen ordubitan, eta gizon zar danak juntatzen zian Kofraira, eta ematen tzixoen kafia ta duro bana, festak pasatzeko. Ta geo jartzen zan zaagixa aundixa: zaagixa usten zan arte gelditu ez!, gizonak, aldamenian jarrita.

San Telmo egunian prozesixua earra ite zan, oaintxe bezelaxe, gaztiak

danak goizian Jaunai laguntzea. Lo ke pasa asteguna izate zan da, lanea jun biar da, kontuak izate zian! Nere itxetikan tzeben gizonak iñork etzun nai izaten lanea jun, danak jai. "Jai in biar dezuela?". "Bai, gu ez guaz San Telmo egunian lanea, ezta pentsatu're!

Prepaatzen gendun kalia, eta zezenak eta danak formatze zian. Bat pazan, Juanito Tuertua, oso gizaseme jatorra, abilla, eta aura zan organizatoria zezenak jartzeko. Txoritxiki're etortze zan, danboliña juaz, Xauakin, eta ark maiñelen entrada danetan jotze zun ttunttuna. Emate zixoen kafia, ta azkeneako danak mokollotzen tzian aixek'e.

Andre danak dantzan. San Telmo eguna orrelaxe pasatzen tzan gure kalian, oso ondo, kalian armatzen tzalako. Kalia zan, ez nik esateatik, popularra oso, jende alegria, alkarri laguntzeko're danak.

Petrilla bat Pasienian bazan ta petrill ortan jartzen tzian andre danak, beren laboriak iten. Bat pazan, Maria Mutriku, sariak oso eerki iten zituna, ta orduan gerrikua iru kolorekua asko eamaten tzan, ta gerrikuak eta iten zitun sariakin da garbantzuentsako poltsak eta, mandatuetaquak eta... An juntatzen tzan jendia.

Jaixetan pixkat beruo, iturrixan onduan, mai bat jartzen tzan, ta mai artan jartzen tzian andriak joko! Danak jokuan ibiltzen tzian. Ta artantxe pasatzen tzian gure kaleko pestak. Oso pesta earrak ite zian ta jendia're danak kontentu!

Oain ez bezela. Oain bandera bat jarri nai ta uraxe jartzeko iñork'e nai ez.



Bi-iru mutil gazte juntatu zian eta jarri zituen banderak; baña geo, zortzi egun pasata banderak iñork kentzeko zeaik ez! Bi mutil gixajo asi eta beaixen artian "etxeu jarriko datorren urtian! "Zuek iten dezue uri, baña banderak garbitu ta plantxatu zeñek ite'txu? Ezta iñorre akordatuko're. San Telmo txikixa zeñek apaintzen du?". Ni urte batian enitxan emen Zumaixan, baña abixua bialdu zien: "Itziar, San Telmoik ez ta apaindu". "Ez tala San Telmo txikiik apaindu? Nola leike?" Ta ezta kasoik iñork'e. Ta nik ez panuke jarriko iñork eluke jarriko.

Ni akordatzen nauk, Modesto Urruzuno, San Telmo kalian eokitzen tzun ark okoillua ta estazixuan ibiltzen tzan mozo, kargakin, astuakin ta zaldixakin. Egun batian asi da itxia zuritzen, ieltseruak asi zaixko ta, etorri zako San Telmo eguna, ta erdixa zurituta ta beste erdixa zuritu gabe. Letrero aundixa jarri zun: "SE CONTINUARA".

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



orain beheko plazan!

Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 143395

BAIEKE

1998ko apirila. 45. zenb.

ENARA, S.L.

INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15

Tel. 862458

Poloetako izotza, tomateak eta negutegi efektua

Lurraren tenperaturak gora egin du azken mendean, eta horren ondorioz poloetako izotza urtzen ari dela esaten digute zientifikoek. Negutegi efektuaren ondorioak omen dira. Bestalde, supermerkatuetan tomateak, letxugak eta beste hainbat barazki eta fruitu aurki ditzakegu urte osoan zehar, gure zaharren harridurarako. Eta hori ere negutegi efektuaren errua omen da. Nola liteke?

Azalpena dirudiena baino errezagoa da. Neurrian dago gakoa, baina lurrean eta negutegietan ematen den fenomeno berdina da. Are gehiago, lurra negutegi handi bat baino ez da, eta halakorik izango ez balitz ezinezkoa litzateke bizitza garatzea.

Zertan datza negutegi efektua? Eguzkiak lurrera bidaltzen dituen izpiak lurrazalean jo eta berriro espazioruntz abiatzen dira. Baina guztiek ezin dute ihes egin. Atmosferak hauetako asko geldiarazten ditu, lurra epel mantendu eta bizitza garatzea ahalbidetuz. Horregatik, zerua garbi dagoen gauetan tenperatura asko jaisten da, atmosferak ez duelako eguzkiak egunez bidalitako energia mantentzen, eta aldiz, eguraldi laiontsua badago, lurra epelago egongo da, beroak ez duelako ihes egingo.

Baina, nola liteke izpiak atmosferan sartu ahal izatea, baina ateratzeko modurik ez izatea?

Hemen uhinen luzera sartzen da jokoan. Argi izpiak uhin luzera laburrekoak dira, atmosfera zeharkatzeko gaitasuna dutenak. Argi izpiak lurrazalean jo ondoren berotasunean bilakatzen da, hau da, uhin luzera handiagoa du. Uhin mota honek ezin ditu gainditu atmosferak jartzen dizkion oztopoak. Beraz, ikusten duzue fenomeno fisikoa dela, uhin luzera aldaketan dagoela gakoa.

Fenomeno berdinean daude oinarrituta negutegiak -estalpeko baratzak-. Argia sartzen da plastikoa edo kritalaren zehar, baina beroa bertan geratzen da, barnean kanpoan baino tenperatura handiagoa lortuz. Horrela, barazkiak eta bestelako fruituak urte osoan zehar lortu daitezke.


Eta zergatik orduan horrenbesteko kezka fenomeno honekin? Esan dugu ezinbestekoa dela lurrean bizitza garatzeko, baina naturan guztiak du neurri bat. Oreak apurtzen bada

arazoak sortzen dira.

Gehiegizko negutegi efektuak lurra gehiegi berotzea eragiten du, eta horrek eguraldian aldaketa handiak ekarriko ditu. Batetik, lehortea luzeak; bestetik eurijasa izugarriak. Eguraldia erotu egingo da. Aldaketa handiegia izango da denbora gutxian, eta espezie asko desagertzeko zorian izango dira. horretaz gain, poloetako izotza urtu egingo da, eta horrek itsasoak gora egitea ekarriko du, kostaldeko herriei kalte handia eginez -irla eta hondartza ugari galdu egingo lirateke-. Itsasoak tokia jango dio lurrari eta hori arazo larria da milioika pertsona bizi baikara kostaldetan.

Pentsatu al duzu inoiz zer gertatuko litzatekeen Zumaian itsasoa metro erdi bat haziko balitz?.

◀ **ARAZI TALDEA**



EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

EGUZKI PUB

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ekin elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Telebés Instalador Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+ SATÉLITE

CANAL DIGITAL

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

CARLIN OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK, HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale nagusia, 3 Tel/Faxa: 143453

BASUSTA ERRETEGIA

Pantxita Etkezarreta, 25 Tel. 862073

apirila

LUDOTEKATIK IRTEERA

TXURI-URDINera irteera 3, 4, 5 eta 6. mailakoentzat. Prezioa, 500 pta (Bazkideak bakarrik)

► Apirilaren 15ean, 15'30etan,

LUDOTEKATIK IRTEERA

TXIKI-PARKera irteera, 1 eta 2. mailakoentzat. Prezioa, 500 ppta. (Bazkideak bakarrik)

► Apirilak 16, 15'30etan

GRAFFITI TAILERRA

Amaia Plazan, arratsaldeko 4retatik 6etara (12 urtetik gorakoentzat). Parte hartu nahi baduzue, KALE HEZITZAILEengana jo beharko duzue: Bidasoa kalea, 1 (dohainik da)

► Apirilaren 16an, 4retatik 6etara

Amaia plaza

ZINE FORUM

"La Buena Estrella" (1997)

Zuz: Ricardo Franco

Akt: Antonio Resines, Maribel Verdú

► Apirilaren 16an, gaueko 10'15etan

IKUS-ENTZUNEZKOA

"Gipuzkoako jaiak: Udaberria" Jabier Juanes-en eskutik. San Telmotako eta herritarren irudi ugari agertzen dira bertan.

► Apirilaren 17an arratsaldeko 7etan

Foronda kultur etxean

BIDEO EMANALDIA

"La caja de croissants"

Apirilaren 23an, arratsaldeko 7etan, bideo emanaldi bat izango da beheko plazako Pentsiodunen Egoitzan. Atzegik antolatzen du.

► Apirilaren 23an arratsaldeko 7etan

ZINE FORUM

"Fotografiando hadas" (1997)

Zuz: Nick Willing

Akt: Toby Stephens, Ben Kingsley

► Apirilaren 30ean, gaueko 10'15etan

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

PINTURA TAILERRA

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta 16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

► Astelehenetik ostiralera, 16.00 - 20.00

ARTXIBO HISTORIKOA


► Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Helduen liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta 16.30 - 19.30

balezulo
importaturiko erroa eta artisautza



Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak

GARRAIO ASTUNAK

AZKUE

Taberna - jatetxea

KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9 Tel. 862441

Auto-konponketak

ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea TEL. 860201

7 MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

ZINE FORUM



Aprilak 16

La Buena Estrella
(1997)

Zuz: Ricardo Franco

Akt: Antonio Resines,
Maribel Verdú, Jordi Mollá

5 Goya sariren (filme, zuzendari eta aktore onenak barne) irabazlea den pelikula hau, aurreko urteko estatuko filmerik onena da dudarik gabe. Ricardo Francoren lanak zine historiako maitasun triangelu arraroenetako bat erakusten du: kastraturiko harakin bat, begi bat falta zaion neska bat, eta gurasorik ezagutzen ez duen gaizkile baten maitasun istorioa kontatzen du. Hirukote honek ezin du bestea ikusi, baina ezin du bestearen maitasunik gabe bizi.

Melodrama izugarri honen arrakastaren zati handi bat aktore bikain hauen lanean dago. Antonio Resinesek aktore serio bikaina dela demostratu digu; Maribel Verdú ez da inoiz hain ondo egon, eta Jordi Mollárena txapela kentzekoa da. Hitz gutxitan, filme bikaina, ikaragarria.

Aprilak 30

Fotografiando hadas (1997)

Zuz: Nick willing

Akt: Toby Stephens, Ben Kingsley

Emakume misterioitsu batek argazki harrigarri bat erakusten dio argazkilari alargun bati. Bertan ume bat agertzen da eta bere eskuetan hada bat izan daitekeen izaki bat agertzen da. Hasiera batean argazkia faltsua dela pentsatzen badu ere, analisia batzuk egin ondoren bere pentsatzeko era aldatu egiten da. Egia jakiteko asmoarekin, emakumeari jarraituko dio ulertzen ez duen mundu batean sartzen den arte.

Nick Willing zuzendari gazte honek kritika bikainak jaso ditu filme honengatik, baina hala ere ez da gure zinetan estreinatu. Kritikari askorentzat urteko filme onenetako bat dugu hau. Fantasiatzko zinearen altxor bat.

Irakurketarako aukerak



Euskaraz

Hitza hitz, Txillardegirekin ...

Pirineoak, 1000 igoera

Amorezko pena baño

Non dago basques harbour eta...

Bihotz bi - gerrako kronikak

Joxean Agirre

Miguel Angulo

Ixtaro Borda

Koldo Izagirre

Ramon Saizarbitoria



Gaztelera

La ingratitude

Ajenos a este mundo

El paciente inglés

Beatriz y los cuerpos celestes

La verdadera

Ying Cheng

Kevin Canty

Michael Ondaatje

Lucía Etxebarria

Saul Bellow



Haurrak/Gaztetxoak

Oilo bizkorra

Din, dan, don, kanpai lapurrak non?

Berunezko soldadutxoak

Samovar

Bremengo musikariak

Simone Abel

Pako Aristi

H. Christian Andersen

Maximo Gorki

Jacob Grimm

HARATEGIA
URDAITEGIA



Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behe Tel. 861018

Ainhoa Arteta izango da uda musikaleko izar nagusia

Mikel Laboaren kontzertu bat ere entzuteko aukera egongo da

Paregabea. Horrela kalifika

genezake 1998ko Uda

Musikala. Ainhoa Arteta

soprano ezaguna buru dela,

egitarau bikaina osatu dute

antolatzaileek aurtengo

edizio honetan. Abeslari

tolosarrak gain, Mikel Laboa

bakarlari veteranoa eta Juan

Carlos Perez, Itoizeko

abeslaria izandakoa ere

Zumaiako musika ekitaldi

internazional honetan

bilduko dira.

Zumaiako musika jaialdi honek orain arte sona dexente izan badu nazioarte mailan, aurtengo honetan errekor guztiak apurtzea espero da. Eta ez da gutxiagorako, izan ere, Zumaiako

Musika Patronatuak, Italiako eta Belgikako orkestra batzuen kolaborazioarekin, jaialdi ikusgarria prestatu baitute uda honetarako.

Uda Musikala, abuztuaren lehen egunean inauguratuko da eta hasiera honetarako, Ainhoa Arteta soprano internazionalak kontzertu bat eskainiko du. Tolosan jaiotako emakume hau mundu mailan onetsuenetakoa da; dena den, antolatzaileek esan dutenez, "bera konbentzitzea ez da lan zaila izan. Zumaiara etortzeko gogoia eduki du hasieratik eta hau horrela izanik ez da inolako arazorik egon bera kontratatzeke".

Izar nagusia Ainhoa Arteta izango da, baina beste pare bat kontzertu nabarmendu behar dira bereziki aurtengo Uda Musikalean. Batetik, Mikel Laboak, bere bizitzan lehen aldiz, Zumaiara joko du abuztuaren 7an. Bost egun lehenago berriz, Juan Carlos Perez, Itoiz taldeko abeslaria zenak, kontzertu bat eskainiko du

Azken egunean ere, Jaialdiko Orkestraren aktuazioa izango da Manel Valdivieso zuzendari katalanaren zuzendaritzapean. Gizon hau, Espainiako zuzendari onenetakoa da, Josep Pons-en famatuaren ordezkaria. Hauetaz gain, ohiko kontzertuetaz gain, kaleko kontzertuak bultzatu nahi dituzte antolatzaileek, herri-tarrari gehiago hurbiltzea, hain zuzen. Beraz, kalitate eta era desberdinetako kontzertuetaz gozatzeko parada izango da.

Ikastaro gehiago

Ikastaroei dagokienez, aurreko urtean baino gehiago daude. Azpiratu beharrekoak, oboe eta klarinete ikastaroak eta baita ahots teknikarena ere. Bi lehiaketa ere izango dira jaialdi honetan. Alde batetik, bakarlari batek Musikaldiko Orkestrarekin kontzertu bat emateko eskubidea izango du eta bestetik, Ganbara Musikako lehiaketa egongo da. Hemen, epaimahaiaren sariaz gain, publikoak ere sari bat emateko aukera izango du.

1998ko Uda Musikalak 10 milioi pezeta baino gehiagoko aurrekontua du. Zumaiako Udalak 4.500.000 pezetako dirulaguntza eskainiko du aurreko urtean bezala.

Bukatzeko, antolatzaileek dei berezia egin nahi die zumaiar guztiei. Zumaiatik kanpo jaialdira etortzen den jende guztia hartzeko etxebizitzak behar dira. Hauetakoren bat norbaitek hartu nahi izango balu, Musika Eskolara zuzendu daiteke San Telmotako jaiak pasa ostean. Ohe bakoitzeko antolatzaileek 2.000 pezeta ordainduko dituzte. **IGOR URANGA**



inaxio Tolosa eta Mertxe Argintxona

ΔΙΣΜΑΝ-KOS S.L.

**SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALAK**

Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxe: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA



DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdia
- 24 ordu
- zuzenean

BALEIKE

1998ko apirila. 45. zenb.

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Fermin Muguruza:

Banpiroa naiz (eta harro nago!)

Fermin berak abestu zituen *M-ak* taldearen kantu batean: "... banpiro nauzu eta ez da txantxa; odola daukat jaki bakarra; baina tamalez bakarrik ona onar dezake nire gorputzak...". Kantaren egileak Kaki Arkarazo eta Xabier Montoia izan ziren eta "Barkatu ama" diskoan agertzen da. Nola asmatu zuten Fermin hori, banpiro bat, inguruko talentu zurgatzaile bat (eta onekoa noski) bihurtuko zela? Kortaturen garaitik hasi baitzen Fermin inguruko musikagileen laguntza "eskatzin". "Kolpe kolpe" diskoaren garaian gaude eta zuzenerako bigarren kitarrajole bezala sartu zen Kaki Arkarazo taldean. Kortatu euskal musikako talde garrantzitsuenak da garai hartan: letra reibindikatiboak, musika freskoa (rock radikalean gertatzen zen bezala 1977ko punk erreboltako musikaren reziklaje txukuna)... eta noski ezin ezetz esan. Momentu horretan Kakik lan triplea du, musika produktorea eta Kortatuko partaidea izanarekin batera, *M-akeko* buruetako bat baita. 80ko hamarkada amaieran Kortatu sakabanatu egiten da. Kaki *M-akera* bueltatzen da; Iñigo Muguruza Delirium Tremensen sartzen da eta Fermin isildu egiten da. *M-ak* eta Delirium bere garai onenean daude. Fermin gero eta nerbiosoago dago eta bere ideiak zabaltzeko Negu Gorriak taldea sortzen du. Musika egiteko Kaki eta Iñigo inguratzen ditu. Ondorioak? Delirium Tremens desagertu egiten da eta *M-aken* berri gehiagorik ez dugu jasotzen. Pozgarria, ezta?

Negu Gorriaken lehen diskoa txurroak bezala saltzen da. Public Enemy eta Spike Lee zinegileak patentaturiko estetika eta kantu patriotikoen nahasketa hori jende askorentzat txundigarria (eta banguardista) da. Makina indartzeko Bap! taldeko Mikel eta Anestesiako Mikel inguratzen ditu. Taldea indartzen den heinean, Ferminen haundikeria ere gorantz doa. Horren ondoren etorri dena denok ezagutzen dugu: disko bikoitza, Europa eta Amerika mailako birak, Galindok jarritako denuntzia eta horren ondorioz antolatutako jaialdia, sakabanaketa eta ondorengo malkoak. Baina oso jende gutxi gogoratzen da Negu Gorriak-ek utzitako beste ondorio batzuek, adibidez Mikel Bap! talde irundarrarekin biran dagoen bitartean, Bap!-ek ezin duela kontzerturik eman eta ezin duela aurrerapausorik eman, eta beharbada horregatik desagertu egin behar izan zuela. Bere gosea asetzeagatik, odol ona lortzeagatik lau taldetan sartu du atzaparra Fermin, eta horren ondorioz talde bakarra atera dela bizirik. Kasualitatea ote? Orain disko berria atera du Fermin, euskal musikako abangardiako talde bat aukeratu du bere testoei musika jartzeko, Dut taldea alajaina. Hemendik denbora gutxira baietz Gainera kantariak inguruko taldeak "mehatxatu" ditu, talde fijo bat eduki beharrean, imajinazioa (odol berria eta ona) duten taldeekin kolaboratu. Eta zergatik hainbesteko kritikak, gorrotoa? Ba beno, hemen arrazoi



batzuek:

- 1.- Roberto Mosso eta Bittor Aiaperekin batera, Euskal Herriko abeslaririk negargarriena delako.
 - 2.- Beti ere banguardista baten fama izan duelako. Eta ez, Fermin Muguruza ez da banguardista bat, kopiatzaile bat baizik. Gainera nola konpara daiteke Fermin Muguruza gure banguardista nagusiarekin, Mikel Laboarekin. Ezineskoa da.
 - 3.- Bere kantuak panfleto hutsak direlako.
 - 4.- Euskal musika mailan beatifikazio bidean dagoen pertsonaia pretenzioso bat delako (beti ere egiten zaizkion galderei erantzun traszendentalak ematen).
- Azkenerako eskaera bat utzi dut: Fermin, hurrengo kolaborazioa Trabuko, Drindots, Egan eta halako taldeekin egin ezazu, ziur aski jende askok eskertuko bait dizu

◀ I. TOWER



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407



Itzurun, 1 Tel. 143224



Ez da horren argazki zaharra, baina badakizue, garaian garaikoa. San Telmotako Badatoz santelmoak!! prozesioa ez da ez gauza berria, argazkia lekuko, ikus bestela nolako bidea zegoen orduan ermitaraino iristeko, ez asfaltorik ezta antzekorik ere. Hala ere, ziur orduan San Telmo-ri bere izenez deituko ziotela. Orain berriz Euskaltzaindiaren erabakiz Elmu Donea edo antzera deitu behar omen diogu. Hasi ba izenarekin praktikatzen!



JESUSKOA JATETXEAK
emandako afaria **M^a DOLORES AIZPURU**rentzat izan da. Askok asmatu zenuten bezala, argazkiko Superwoman Txomin Plazaola baitzen.

Tripa-festa lehiaketa

Adi, adi! Bi pertsonentzako afari eder bat irabazi dezakezu!

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

Non izan zen 94ko San Telmotako bazkari herrikoia?

Asmatzen duzuenon artean ZALLA ERRETEGIAK emandako afaria zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoian edota Forondan uztea, apirilaren 26a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!



Arkupe
Okjndegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

AUTOS ZUMAIA
Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45

Tel. 861485

AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206

BAIEKE

1998ko apirila, 45. zenb.

motxian hi!



zein: Mentxu Zalla Ansola

zer: Ikaslea

nola: Pollera

Zure ofizio frustratua.

Albaitaritza, baina odolak, orratzak eta holakoek fobia ematen die.

Zer da gehien apreziatzen duzuna?

Laguntasuna, konfiantza.

Zer ari zara ikasten?

Zuzenbide-idazkaritza.

Nola ikusten duzu emakumeak lan munduan duen papera?

Pentsatzen det hobetzen dihoala, baina orain-dikan erakusteko dago balio deguna.

Zumaiako tabernarik martxosoena?

Hori galdetzia ere!

Animalia gizakiaren lagunik handiena al da?

Uau-uau!

Urteko lau urtaroetatik zein duzu gogokoen? Zergatik?

Udara, dudik pe: eguzkia, parrandak...

Etorkizunerako planik bai?

Bai, behingoz datorren urtian Inglaterrara jutia pentsatzen det, lana eitera.

Tabernan nolako piropoak entzuten dituzu?

Danetik aitzen da, baina igertzen da ez duela benetan esaten. Gertatzen da arrarua dala Zumaiari barran neska bat topatzia.

Eta zuk zer piropo botako zenuke?

Nik asko esaten det pottorri eta txikitin. Eta txakurrei mi amor, mi cielo... danetik!

Zein da tortilen sekretua?

Aman eskua eta maitasunez eitia.

Trikitixa ala txunpa-txunpa?

Hoi momentuan arabera. Gabian, adibidez, txunpa-txunpa.

Ilea inoiz rubiaz tintatuko al zenuke?

Sekula ez.

oharrak

AEK-k antolatutako GLOTODI-DAKTIKA ikastaroa Donostian izango da uztailen.

Izena emateko deitu 943471935 telefonora.

agurrak

Txubimendi, pero tu de ke bas! Balomano ez uhala. Gu inbitau!!!

Hi Txirolo, baek garaia begi horiek irekitzeko. 18 urtekin!

Hi Joxe M^a beti esatek berdin: Beti mejoan, baina neskak ez dik mejora handik egiten. Mekauen Dio!!!

Bale Txosk!!!
AMERIKANAKIN ZE!!!

Xanta, iepa ieeé eepa,
mai Zelain ez uan giro!!!
iepa iepa ieeé ieeepa!!!



ITZIAR. Telefonoa: 19 93 89

**TXINDURRI
ITUARRI**

SAGARDOTEGIA
ERAKUSKETA





Ostolaza
BURDINDEGIA

GIZA SEGURITATEA
ZAINZKEO TRESNAK

GORA SAN TELMO!

Aita mari auzategia, 10 behea.
tel. 861666 Faxa. 861345
ZUMAIA



AUPA SAN TELMO!!



BALEIKE



KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatuz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



DORNUTEGI

SUKALDEKO HALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel. 862051



Sukalderako hornikuntza
diseinuak.

Lanen zuzendaritza.

Edozein sukaldetara
moldaturiko diseinu bereziak.

Kalitate-prezioan parekorik ez.

